BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2662

109/2014 DEKRETUA, ekainaren 10ekoa, aurri-egoerako deklarazio-prozeduraren barne dauden Azkoitiko (Gipuzkoa) Kale Nagusiko 6. eta 8. zenbakian diren higiezinak desafektatzea ebazten duena. Ondasun higiezin horiek Azkoitiko Hirigune Historikoa, Monumentu Multzo izendapenaz, Kultura Ondasun gisa izendatu, eta hura zaintzeko babes araubidea ezartzen duen urtarrilaren 25eko 17/2005 Dekretuaren eraginpean daude.

Aipatu higiezinak (Kale Nagusia, 6 eta 8), Azkoitiko Hirigune Historikoa, Monumentu Multzo izendapenaz, Sailkatutako Kultura Ondasun deklaratzeari buruzko urtarrilaren 25eko 17/2005 Dekretuaren eraginpean daude (EHAAren 24 zk., otsailaren 4koa). Horren arabera, higiezin horiek oinarrizko babesa dute.

Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 36. artikuluan (EHAAren 157 zk., abuztuaren 6koa) sailkatutako eta zerrendatutako ondasunen eraispena debekatzen da, aldez aurretik aurri-deklarazioa eta Fotu Aldundiaren baimen espresa ez badira. Halere, aurretik Eusko Jaurlaritzak desafektaziorako baimena eman beharko du.

Aipatu arauak garatze aldera, azaroaren 10eko 306/1998 Dekretua egin zen, sailkatutako eta zerrendatutako kultura-ondasunen aurri-egoeraren deklarazioari buruzkoa eta beroriek eraisteko erabakiaren aurretik eta ondoren egin beharrekoei buruzkoa (EHAAren 226 zk., azaroaren 26koa).

Azkoitiko udalak Euskal Kultura Ondarearen Zentroari bidali zion hirigune historikoan dauden Kale Nagusiko 6 eta 8 zenbakiko higiezinen aurri-espedientearen kopia. Horrekin batera, aipatutako 306/1998 Dekretuari jarraituz, desafektatzeko espedienteari hasiera emateko eskatu zuen.

Higiezin horiek oinarrizko babesa dute urtarrilaren 25eko 17/2005 Dekretuaren arabera (EHAAren 24 zk., otsailaren 4koa.), non Azkoitiko Hirigune Historikoa, Monumentu Multzo izendapenaz, Kultura Ondasun gisa sailkatu eta hura zaintzeko babes arauak ezarri baitziren.

Zerbitzu teknikoen txostenak kontuan harturik, eta aurri-egoeraren espedientea eta izan diren ekintzak ikusirik, Euskadiko Monumentu-Ondarearen Aholku Batzordeak, 2013ko abenduaren 4an egindako saioan, Azkoitian diren (Kale Nagusia, 6 eta 8) eraikinak desafektatzea eta babes morfologikoa duten elementuen artean sartzea erabaki zuen.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen 2014ko martxoaren 27ko Ebazpenaren bidez (EHAAren 64 zk., apirilaren 2koa) Azkoitiko Kale Nagusiko 6. eta 8. zenbakian diren higiezinak desafektazeko espedienteari hasiera eman zitzaion, jendaurrean jarri zen eta interesdunei entzun zitzaien.

Horretarako legez ezarrita dauden izapideak bete ondoren, ez zen alegaziorik aurkeztu.

Hori dela-eta, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritakoaren arabera, Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek egindako aldeko txostena ikusirik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren proposamenari jarraituz eta Jaurlaritzaren Kontseiluak gaia 2014ko ekainaren 10eko bilkuran aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Azkoitiko Hirigune Historikoa Kultura Ondasun gisa Monumentu Multzo izendapenaz sailkatzeko eta hura zaintzeko babes arauak ezartzeari buruzko urtarrilaren 25eko 17/2005 Dekretuaren menpean diren eta oinarrizko babesa duten Kale Nagusiko 6. eta 8. zenbakiko eraikinak desafektatzea eta babes morfologikoa duten elementuen zerrendan sartzea.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak Euskal Kultura Ondarearen Zentroari honako hau eskatuko dio: zentroari atxikita dagoen Sailkatutako Kultura Ondasunen Erregistrotik ezabatzea ondasun higiezinei buruzko prebentziozko idatzoharrak.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak interesdunei, Azkoitiko Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol eta Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketarako Departamentuei, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumena eta Lurralde Politika Sailari honako Dekretu hau jakinaraziko die.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende guztiak honen berri izan dezan.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Administrazio-bidea amaitzen duen dekretu honen aurka, lehenik, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke Jaurlaritzaren Kontseiluari hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean. Epeak dekretu honen azken argitalpenaren egunaren biharamunetik hasiko dira.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko ekainaren 10ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.